

# 9-KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa sortzeko izango ditugun kostuak aztertu beharra dago. Bi kostu mota izango ditugu, **finkoak** eta **aldakorrak**. **Bideragarritasun ekonomikoa** egiaztatzea eta **errentagarritasuna ebaluatzea** izango ditugu helburu.

## KOSTU MOTAK

### KOSTU FINKOAK

#### Dendaren alokairua

Denda izateagatik alokairu bat ordaindu behar izango dugu. Beraz, kostu hori finkoa izango da. **Hilero** ordaindu behar dugu **1.100€**. Beraz, gure kostuak saltzen eta jasotzen dugunaren menpe egongo dira. Horrekin batera, zergak ordaindu beharko ditugu.



### KOSTU ALDAKORRAK

#### Soldatak

2 langile izango ditugu, Itziar eta Ander. Haien lana dendan laguntzea izango da. Ez dute egunero lan egingo, egun soltetan baizik. Ez dakigunez oraindik nola egingo duen aurrera gure dendan, nahiago dugu prezio finkoak murriztea.



#### Lehengaiak

Lehengaiak kostu aldakorrak izango dira. Izan ere, ekoizten, saltzen eta jasotzen dugunaren arabera izango dira. Jasotzen dugun produkturen bat txarto egotekotan, lehengaiekin konponduko genuke.



#### Energia

Energiari dagokionez, ura, gasa, internet eta argia izango dira. Hauek gure erabilpenaren menpe egongo dira. Uraren prezioa ez da altua izango, ez baitugu asko erabiliko. Argiaren kasuan, finkoa izango da, behar dugulako denbora oro. Azkenik, gasa ez dugu asko erabiliko, ez baitugu beharko.




### Garraioa

Garraioari dagokionez, saiatuko gara kostuak murrizten. Correos Express-en bidez bezeroen etxera eramango ditugu produktuak, baina haiek nahi izanez gero. Normalena, pertsonalki saltzea izango da; baina badaezpada, baliabide hau izando dugu. Saltzen dugunaren arabera, honen prezioa igoko edo jaitsiko da.

## ZEIN IZANGO DA GURE ESKALA EKONOMIA?

Esan bezala, gure kostu finkoak ekoiztutatako, edo kasu honetan, saldu eta jasotako produktuen arabera egongo dira. Kostu horiek berez ordaindu behar ditugunez, zenbat eta gehiago saldu, kostu finkoak saldutako produktuen artean bananduko dira. Hau da, jasotako diruarekin kostu finkoak ordaintzeko erretzasun handiagoak izango ditugu.



## EZAGUTU GURE KOSTU ESTRATEGIA!

Gure kostu estrategia kostuak minimizatzea izango da. Hau da, lehiakide guztien artean gure enpresa bereiztea, kostuak minimizatuz.





**Kostuak minimizatzeko negozio-eredua**

Gure produktuen prezioak, bigarren eskuko produktuak direnez, baxuak izango dira. Horren helburua gure lehiakideetatik bereiztea izango da. Gu bezalako enpresa asko daude, baina gure produktuen kostua murriztuz, jendea gure enpresara jotzea nahi dugu

